



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

Prentsa oharra

ENKARTERRIETAKO MUSEOA –BIZKAIKO BATZAR NAGUSIAK

Eskualdeko burdinolei buruzko erakusketea inauguratu dau Enkarterrietako Museoak

- *Maiatzaren 3ra arte egongo da zabalik.*

Bilbon, 2008ko abenduaren 22an. Bizkaiko Batzar Nagusien Abellanedako batzarretxean dagoan Enkarterrietako Museoak erakusketa barria inauguratuko dau bihar arratsaldeko 18:30etan, “ENKARTERRIKO BURDINOLAK, GORDETAKO ONDASUNA” izenburupean. Erakusketa horretarako Artzentaleseko Mollinedo burdinolakoak ziran XVIII. mendeko agiri biri buruzko monografiko bi prestatu dira eta 2009ko maiatzaren 3ra arte egongo dira ikusgai.

Hainbat mendetan zehar, burdinolak Bizkaiko industriarik garrantzitsuenetakoak izan ziran. Holakoetara Trianoko mendietatik ataratako burdin-mea eroaten eben burdin totxoak eta barrak egiteko. Holakoetatik, gero, dana dalako lanabesak eta apaingarriak egiten ebezan: armak, solorako tresnak, kateak, lanabesak, untzeak, apaingarriak, balkoi eta leihoetarako hesiak eta abarrekoak. Holako asko eta asko oraindik be ikusi geinkez jauregi, torretxe edo baserrietan, baita eguneko lanetan be, soloetan edo artisauen eskuetan. Beste batzuk Museora eroan dira, erakusketa honetarako hain zuzen be.

Enkarterrian hainbat burdinola egon zan, eurotarikoren batzuk XV. mendetik hasita. Ondoen heldu jakuna Pobalekoa da (Muskizen), gaur egun museo bihurtuta dagoana. Baina beste hamabost ingururen aztarnak geratu jakuz, behintzat, Enkarterriko herrietan (Muskiz, Galdames, Sopusuerta, Zalla, Artzentales, Gordexola, Turtzioz eta Barakaldo). Erakusketan ikusgai egongo dira burdinolak, baita eurei buruzko hainbat informazio be.

Hiru zatitan banatzen da erakusketea. Lehenengoan, gaur egunera arte iraun daben burdinolen aztarnei buruzko ikerketa-prozesua erakusten da. Horretara, bada, burdinola batzuetatik geratzen dana ikusi leiteke, esate baterako Valdivián (Galdames), Artekona (Gordexola) edo Bolunburu (Zalla) burdinolena, beste askoren artean, eta Bizkaiko burdinolei buruzko jatorrizko pieza batzuk be, esaterako auspoak, ingudeak eta erramintak.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

Bigarren zati baten “*Artzentaleseko Mollinedoko burdinolako burdin-mearen eta ikatzaren zirriborroak*”, burdinolara eroandako gai bion kontuak egiteko liburutxoak hain zuzen.

Azkenik, hirugarren zati baten, burdinoletan egiten ziran gauzen eta tresnen erakusketea dago. Hemen ikusi geinkez, alde batetik, burdinoletako oinarrizko produkzioaren emaitza (totxoak eta barrak) eta horreetatik abiatuta burdinoletan bertan egiten ziran mota guztietako gauzak, batez be erremetari-lanak: balkoiak, leihoetarako hesiak, balaustre eta puntalen bilduma bat, laborantzako tresnak eta beste lan batzuetako lanabesak, etxeko tresnak, atea eta abar.

Enkarterrietako Museoak mota guztietako piezak bildu ditu, gorengo mailatik hasita —portoiak, balaustreak, haizorrazak,...— arruntenetaraino —oinetakoak konpontzeko plantilak, untzeak, otsoak harrapetako zepoak, ingudeak,...— dan-danak burdinezkoak.

Burdinoletako ikuspegia osatzeko, Enkarterrietako Museoak eta Pobaleko Burdinolak batera egingo dabe lan erakusketaren bisitariak burdinola hori bisitetan joan daitezcan gero, Museotik nahiko hur dago-ta. Horretara, bada, Enkarterrian geratzen diran burdinolen aztarnak ikusi ahal izango dabez eta Euskal Herri guztian ondoen heldu jakun burdinolea ezagutzeko aukerea izango dabe.

Era berean, gaiaren inguruko zenbait aurkezpen eta ekimen izango dira hurrengo hilabeteetan: erremetari-lan bilduma bikainaren aurkezpena, Barbadun ibaiaren zeharko mendi-ibilbide bat hango burdinoletako aztarnak ezagutzeko edo burdinolei buruzko liburu baten aurkezpena, beste batzuen artean.

Argibide gehiagotarako: 94 650 44 88
(Javier Barrio, Enkarterrietako Museoaren Zuzendaria)
www.enkarterrimuseoa.net



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

Nota de prensa

MUSEO DE LAS ENCARTACIONES – JUNTAS GENERALES DE BIZKAIA

El Museo de las Encartaciones inaugura una exposición sobre las ferrerías de la comarca

- *Permanecerá abierta hasta el 3 de mayo.*

Bilbao, a 22 de diciembre de 2008. El Museo de Las Encartaciones de Abellaneda, perteneciente a las Juntas Generales de Bizkaia, inaugurará mañana a las 18:30 horas una nueva exposición titulada “FERRERÍAS DE LAS ENCARTACIONES. PATRIMONIO CONSERVADO”, dentro de la cual se han incluido dos monográficos sobre dos documentos del siglo XVIII procedentes de la ferrería de Mollinedo (Arcentales). La exposición se prolongará hasta el 3 de mayo de 2009.

A lo largo de los siglos, las ferrerías fueron una de las principales industrias del Señorío de Bizkaia. En ellas, se transformaba el hierro en bruto (la vena) que se sacaba de los Montes de Triano, en hierro elaborado en forma de tochos y barras. A partir de estas formas, se fabricaban luego todo tipo de instrumentos, adornos y aparejos: armas, aperos de labranza, balcones, herramientas, piezas decorativas, etc... Muchas de estas piezas las podemos ver todavía formando parte de palacios, torres, caseríos e incluso siendo utilizadas para su trabajo diario en huertas y trabajos artesanales. Otras han sido llevadas al Museo para que formen parte de la exposición.

En Las Encartaciones existieron un número amplio de estas ferrerías, algunas de las cuales se remontan hasta el siglo XV. De todas ellas, la mejor conservada es la Ferrería de El Pobal (Muskiz), convertida hoy en museo. También quedan restos de al menos una quincena en diferentes pueblos de Las Encartaciones (Muskiz, Galdames, Sopuerta, Zalla, Artzentales, Gordexola, Turtzios y Barakaldo). En la exposición se podrán observar estas ferrerías así como abundante información relacionada con ellas.

La exposición se divide en tres bloques. En el primero aparece el resultado del proceso de investigación de los restos de ferrerías que se conservan en la actualidad. Así, se muestra lo que queda de ferrerías como Valdivián (Galdames), Artekona (Gordexola) o Bolunburu (Zalla), entre otras muchas, y algunas piezas originales de ferrerías vizcaínas como fuelles, yunques, herramientas de trabajo, etc.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

Una segunda sección gira en torno a los “Borradores de vena y carbón de la ferrería de Mollinedo (Artzentales)”. Pequeños libros del siglo XVIII explican el uso que las ferrerías hacían del carbón y del hierro.

Finalmente, una tercera parte muestra todos los productos que se obtenían y sus derivados. Aquí se observa tanto la producción básica propia de las ferrerías (barras y tochos) como numerosos ejemplos de diferentes productos manufacturados producidos en estas mismas ferrerías, sobre todo, en forja: balcones, enrejados, una colección de balaustres y tornapuntas, aperos de labranza y herramientas de trabajo, útiles del hogar, puertas, rejas, etc...

El Museo de las Encartaciones ha recogido piezas que van desde lo más culto y elitista –portones, balaustres, veletas...- hasta modestos elementos de trabajo –plantillas para arreglar zapatos, clavos, cepos para cazar lobos, yunques...-, todo ello realizado en hierro.

Para completar la visión sobre el mundo ferrón, el Museo de Las Encartaciones y la Ferrería de El Pobal colaborarán para que los visitantes puedan recorrer la exposición y luego dirigirse a conocer directamente esta ferrería, ubicada en las cercanías del Museo. De esta manera, podrán observar con mayor exactitud los restos de las ferrerías que quedan en Las Encartaciones y disfrutar de la ferrería mejor conservada de Euskal Herria.

Igualmente a lo largo de los próximos meses se realizarán diversas presentaciones y actividades sobre este asunto: presentación de una excelente colección de forja, realización de una marcha montañera por la cuenca del río Barbadun visitando los restos de ferrerías que ahí se encuentran o la presentación de un libro sobre las ferrerías, entre otras acciones.

Más información: 94 650 44 88
(Javier Barrio, Director del Museo de las Encartaciones)
www.enkarterrimuseoa.net